

Eklektizismoa ez da, jakina, berezko dohaina, ez egun batetik bestera umotzen den fruitua, ezta ustekabeen lortzen den jarrera ere. Ardoak ardo on eta gozo bihurtzeko bere denbora, arreta, ardura eta abar behar dituen bezalaxe, behar ditu eklektizismoak ere bereak, irakaslegoan erroak indar hartu aurretik.

Honetan ere, irakasleari dagokio azken hitza. Oraingoan behintzat jokatuko ahal du denborak euskararen alde! Ez dezala inor gehiagok beste hark esandakoa berriro esan: euskara gutxi ikasten badute, ez dela euskarak berak dituen zailtasunengatik, dituen irakasleengatik baizik.

Pello Esnal

Xede berezitarako euskara?

Pauso nabaria eman da Euskal Herrian euskararen irakaskuntzari dagokionean, azken bospasei urteotan; oinarri-oinarrizkoa den irakaslego erabat profesionala moldatzen hasteaz aparte, metodogintzako ahaleginak ere ez dira makalak izan.

Aurrerapen hau ez da, agian, zenbaitek nahi bezain azkar gertatu. Irakasle euskaldunberria, ordea, aurrerakadaz ondo ohartu da eta, klaseak ematen dituenean, maiz samar etortzen zaio burura bera ikaslea zeneko egoeraren larria.

Bestalde, eta oso maila apalean bada ere, euskara berriki sartua dugu unibertsitatean, eta orain arte euskaraz inoiz erabili izan ez diren gaiez komunikatzeko tresna bilakatu zaigu. Hor-taz, bada, ezin uka, irakaskuntzaren aldetik behintzat, aurrera egin dela. Egoera honek, alabaina, zenbat behar «berritara» hurbiltzen gaitu. Hariari hel diezaiogun: Xede Berezitarako Hizkuntza delakoaz ari gara. Ikus dezagun, oso laburki bada ere, zertan den.

Xede Berezitarako Hizkuntza (XBH) hiztunak bere bizitza profesionalean erabili behar duen hizkuntz mota da. XBH ikastaldien zabaltasuna dela bide definizio hau apur bat zehaztearren, bi sail nagusi bereiztuko ditugu:

- a) Eskuarki betebeharrak linguistiko handiak eskatzen ez dituzten lanbideen multzoa (Telefonista, Dendako saltzailea, Jatetxe-zerbitzaria, Atezaina...).
 - b) Prestakuntza akademikoa eskatzen duten lanbideen multzoa (Sendagileak, Abokatuak, Kimikariak, Injineruak...).
- Jatorriz xede-hizkuntza berena duten profesionalekin jardun behar dutenak (bilkurak, kongresuak, norberaren herritik kanpora lan egin beharra, atzerriko unibertsitateetan ikasle dabiltzanak...).
- Xede-hizkuntzan dauden argitalpenak irakurri ahal izatearekin aski dutenak.

Bistan denez, bi puntuon artean eta berauen barnean ere nahi adina azpisail egin daiteke. «XBH ikastaldirik egokiena, ikasle bakarrak egiten duena da» dio Robinson-ek arazo honetaz ari delarik, hain zuen ere.

Unibertsitateko ikasketak egin ondoren, bere herrian ez dagoen mailaraino iristearren atzerriratu beharrean dagoena; gai bat sakondu nahiz, bere jatorrizko hizkuntzan bibliografiarik ez dagoela eta, beste hizkuntzetan dauden liburuetara jo behar duena; edota lanera doan emigrantea ditugu aipatu ikastaldien ohizko bezeroak.

Noiz da gai ikaslea XBH ikastaldia jarraitzeko?

Ezin erantzun daiteke zehatz eta mehatz, egoera bakoitzak tratamendu berezia eskatzen bait du. Ordenantza baten betebeharrak, agian, informazioa ematen jakitearekin bete litezke; kasu horretan atalase edo behegoko maila aski litzaioke. Hariaren beste muturrean jarrita, Joyce-ren obrari buruzko tesina paratu nahi duenak goi-goiko ezagutza maila beharko du, batez ere irakurmenari dagokionean. Europako Kontseiluak, besteak beste, beharrezkotzat jotzen du oinarrizko maila bat lortzea norberaren behar profesionali dagozkion hizkuntz formak ikasten aritu baino lehen.

Nolako irakaslearekin?

Argi dago erreziklaje edo prestakuntza berezirik gabeko irakasle arrunta ez dela aproposena zeregin honetarako, hizkuntza eta irakasteko teknikaz ezezik, jardungo dueneko arloaz ere nolabaiteko ezagutza beharko du eta. Are eta nabariago azaltzen da arazo hau metodoa bera atontzerakoan; horrelakoetan, hizkuntza erabiliko den arloko profesionalen laguntza behar izaten da.

Nola prestatzen da honelako metodo bat?

Ohizko metodo bati hiztegi berezia eransteak ezer gutxi laguntzen du. Pauso honetan hitz soilez aparte, hitz-kate eta esamoldeak, berauen maiztasuna, zarataren presentzia, beronen eragina entzuten zein hitzegiten duenarengan aztertzen dira. Adibidez, «emazkidazu gorai-zeak» esaldiak oso ebakera desberdinak izan ditzake sendagileak ahoa estalita eta kirofanoko isiltasunean esanda, edo josteko makinak martxan daudela jostunak esanda.

XBHren arloan ere, erreferentziarik bilatzekotan, munduan gehien irakasten den hizkuntzara, ingelesera, jo beharra dago; izan ere, XBH ikastaldien hedapena ingelesa mintzaten deneko nazioen garapen teknologikoaren eskutik bait dator.

Ikastaldi horiek beharrezko testuez horniturik egoteaz aparte, hizkuntz irakaskuntzan erabili ohi diren lagungarri pedagogikoei dagokienean ere, material egokia daukate, hala nola, diapositibak, bideo-zintak...

Gurera itzuliz, euskararen kasura alegia, asignaturak euskaraz irakatsi behar dituen irakaslearentzat bideraturiko zenbait saio eta Alfabetatze Tekniko izenpeko esperientziez aparte, ezer gutxi daukagu oraindik. Hala eta guztiz ere, eta iritziak iritzi, ez deritzogu honelako ikastaldiez pentsatzen hasteari inolako bidegabekeria denik; horietarikoz batzu EGA gairak dituenentzat moldatu ahal izango lirateke, beste batzu lehenagorako. Izan ere, zenbat estuasunetatik aterako lituzke XBH ikastaldiren batek banketxeko enplegatua, Diputazio ateondoko ertzaina edota EGA azterketa prestatzen ari den ATSa, bere lanarekiko esamoldeak automatizatu gabe dituelako hitzegiten ausartzen ez dena?

Agian, sakonki aztertzea merezi duen aipaturako Alfabetatze Teknikotik has liteke. Dena dela, ate joka dugu jadanik apustu berria; eta euskara kalera eta eskolara ezezik, lanera ere bai, dio oihuak.

Josu Perales